

2025EKO SANFAUSTOETAKO «KARTEL TXIKI ETA GAZTE» LEHIAKETA

1.- Egile bakoitzak, gehienez ere, lan bat aurkeztu ahal izango du.

2.- Kartelak DIN A-3 neurrikoak (420 X 297 mm) izango dira, eta oinarri hauekin batera atxikitzen den ereduaren arabekoak. Eredu hori eskuragarri egongo da Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoetan eta Basauriko Udalaren webgunean (www.basauri.eus).

3.- Lehiaketara Basauriko Jaiek berezko dituzten gai eta sinboloak aurkeztuko dira, eta parte hartu ahalko dute Basauriko ume guztiek. Lanean ezingo da jarrera homofoboaren, xenofobaren, ez hizkera, irudi edo eduki sexistaren publizitatea edo horiek bultzatzea bilatuko duen erreferentziarik egin, ez eta animalien aurkako tratu txarrak eta alkohol-dun edarien edo tabakoaren kontsumoa sustatu -Udalak gaiari buruz onartutako araudiarekin bat-. Ildo horri jarraiki, Epaimahai Kalifikatzaileak lehiaketatik kanpo utzi ahalko ditu araudiaren kontra doazen kartelak.

Ezinbestekoa izango da lanak jatorrizkoak izatea, ez jadanik argitaratutako argazki, kartel edo marrazki baten edo horien zati baten kopia.

4.- Kategoría bi bereziko dira:

- «Txikiak»: 6 eta 9 urte bitarteko Basauriko haurrak.
- «Gazteak»: 10 eta 13 urte bitarteko Basauriko haurrak.

5.- Lanak aurkeztea.

Lanak Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztuko dira, lanegunetan, 08:00etatik 14:00etara bitartean. Aukeran, telematikoki aurkeztu ahalko dira, www.basauri.eus udal webgunean. Epea uztailaren 5etik irailaren 5era.

5.1.- Bulegoetan

Kartelak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira. Atzealdean leloa idatziko zaie, «TXIKIAK» edo «GAZTEAK» berbarekin batera. Kartelari gratututa, itxitako gutun-azala ere aurkeztuko da, kanpoaldean kartelaren lelo bera eta egilearen adina eta ikasturtea adierazita. Gutun-azalaren barruan, berriz, egilearen datu hauek jasotzen dituen oharra sartuko da: izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta zein ikastetxe eta ikasturtetan dagoen.

5.2.- Telematikoki

Lanak telematikoki ere aurkeztu ahalko dira. Horretarako, lotura bat jarriko da www.basauri.eus helbidean, eta parte-hartzaileek beren kartelaren irudia igo ahalko dute, JPG formatuan, beren identifikazio-datuekin batera (izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia, ikastetxea eta ikasturtea). Lanak, uztailaren 5etik irailaren 5era aurkeztu beharko dira.

Edozelan ere, kartelean honako hau agertu beharko da:

SAN FAUSTO 2025

BASAURI

URRIAK 11-19 OCTUBRE

6.- Epaimahai Kalifikatzailea honako hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia.

Epaimahaikideak:

- Alderdi bakoitzeko ordezkari bat.
- Herriko Taldearen ordezkari bi.
- Zoroaren ordezkari bi.
- Artista bi edo arlo horretako teknikari bi.

Idazkaria: udal langile bat.

Epaimahaian emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzeko ahaleginak egingo dira sexu bakoitzeko pertsonak ordezkatzuta egon daitezen. Gainera, Basauriko Udalak dagokion neurriak hartuko ditu kartelaren proposamenak baloratzeko prozesuan genero-ikuspegia txertatzeko gaitasuna edo prestakuntza duten pertsonen epaimahaian parte har dezaten. Horretarako, Udaleko berdintasun Arloak dekalogo bat eskuragarri jarriko du, hautaketa-prozesuan genero ikuspegiko irizpideak bilduko dituen, “Gazteak” kategoriarako zein “Txiki” kategoriarako.

7.- Epaimahai Kalifikatzailea udaletxean batuko da 2025eko irailaren 12an, kategoria bakoitzeko kartel irabazlea hautatzeko -kartel seniorra aukeratu eta gero-.

8.- Epaimahaiak saria eman gabe utzi ahal izango du, jotzen badu aurkeztutako lanek gutxieneko maila artistikorik ez dutela, edo ikusten badu lehiaketa ez dela egin behar, aurreikusi gabeko inguruabarrak edo inguruabar bereziak direla eta.

9.- Automatikoki baztertuak izango dira deialdi honetan jasotako baldintzak betetzen ez dituzten lanak.

10.- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta ezagutzera emango da ohiko komunikabideak erabilita.

11.- Sari nagusi bakarra banatuko da kategoria bakoitzean (aurrekontupartida: 2025 102.3382.48099 - T. A. familientzat. JAIK) Hauxe izango da:

«Gazteak» kategoria

- Basauri Kirolakeko igerilekuan ordubeteko egonaldia, eta, gero, askaria kafetegian, gehienez ere 15 umerentzat, instalazioak libre dauden egun batean. Eta Basauriko Indoor Multiabentura Parkerako lau sarrera, bi orduz bertan jarduteko.

Saridunei telefonoz deituko zaie, azaltzeko zer egin behar duten sariaz gozatzeko. Jarduerak, bestalde, Epaimahaiak saria esleitzen duen datatik bi hilabeteko epean erreserbatu beharko dira.

Zoroak kuadrillak lehiaketaren berri zabaltzen lagunduko du, eta Gazteak kategorian 100 €-ko txartela emango du, Basauriko dendetan gastatzeko.

«Txikiak» kategoria

Social Antzokiko haur-ikuskizunetarako lau sarrera, eta zinemarako beste lau sarrera banatuko dira.

Saridunei telefonoz deituko zaie, azaltzeko zer egin behar duten sariaz gozatzeko. Jarduerak, bestalde, Epaimahiak saria esleitzen duen datatik bi hilabeteko epea barruan Sozial Antzokiko lehiatilatik jaso beharko dira.

Zoroak kuadrillak lehiaketaren berri zabaltzen lagunduko du, eta Txikiak kategorian 50 €-ko txartela emango du, Basauriko dendetan gastatzeko.

12.- 20 lanik onenak Ibaigane Kultur Etxean egongo dira ikusgai, urriaren 3tik 20ra bitartean (10 lan kategoria bakoitzeko).

13.- Epaimahaiak uste badu saritutako karteletan xehetasun edo koloreren bat aldatu behar dela, kartelak bere xedea hobeto bete dezan, egileek hala egin beharko dute. Era berean, egileari eskatu ahalko zaio obraren kopia bat aurkezteko DIN A-3 formatuan (beharrezko jotzen bada lanaren zabalkundea egiteko).

14.- Udala izango da saritutako kartelen jabea, eta, beraz, horiek erreproduzitu eta banatu ahal izango ditu, egoki iritzitako une eta moduan. Hala eta guztiz, «Gazteak» kategoriako kartel irabazlea baino ez da agertuko Sanfaustoetan haur eta gazteei zuzendutako ekitaldiak jasotzen dituzten egitarauetan.

15.- Lan bakoitza aurkeztu izanaren egiaztatzea emango da, kartela bueltan jaso ahal izateko - baldin eta saritua izan ez bada-. Telematikoki aurkeztutako lanen kasuan, sistema informatikoak egiaztatzea emango du, izapidea amaitzen denean.

16.- Saria jaso ez duten lanak Kultura-Politika eta Euskara Arloan jaso ahal izango dira hilabeteko epean, 2025eko urriaren 24tik aurrera. Udala ez da izango aurkeztutako lanak garraiatzean, maneiatzean, erakusgai jartzean, biltegiatzean edo antzekoetan gerta daitezkeen kalteen erantzulea.

17.- Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du xedapen hauek goitik behera onartzen direla.